



## “Real Madriletik Gutirekin gorde dut harremana”

**Ainhoa Aznarez | Hezitzailea**

UGT sindikatuko ordezkaria izan zen Sakanan eta PSN alderdiko zinegotzia Iruñean. Orain Emakume Aurrerakoen taldeko burua da Nafarroan. Tarteka, presidente lanak bete izan ditu San Ferminetako zezenketetan.

**FERMIN ETXEGOIEN**

Argazkia: Josu Santesteban

**Ahotsak taldeko kidea ere bazara, baina ez zitzaidan sarrerako testuan sartzen eta orain garrantzitsua ote den ez nago seguru...**

Niretzat oso garrantzitsua da Ahotsaken parte hartzea. Azken urteotan hartu dudan erabakirik hobereana eta interesgarriena da.

**Zertarako balio izan du?**

Besteari –hau da, ideia ezberdinak defendatzen dituenari– zor zaion errespetua izateko, duen egia zatia errespetatzen ikasi eta ulertzeko. Aurrerapauso finkoak egin ditzagun helburu batera iristeko: bakera.

**Bota egin zintuzten PSNtik ala zeu joan zinen?**

Ez naute bota, ezta nik alde egin ere. Oraindik lurralde batzordeko ordezkaria naiz datorren kongresura arte. Hau da, 2008ko uztailera arte.

**Bizkartzainik eramaten al duzu?**

Bai, duela bost urte Barne Ministerioak ipini zizkidan eta haiek esango didate noiz kendu; beraien eskuetan dago erabaki hori.

**Zure zenbait alderdikidek protagonismo nahia leporatu zizuten.**

Gatazka bat konpontzeko asmoa ezin daiteke protagonismoarekin lotu, falta zena!

**ETAk zuri bizitza kentzeko beldurretan bizi al zara?**

Ez, ez dut uste gatazka politikoa konpontzeko ahalginak egiteagatik edo bakearen alde lan egiteagatik horrelako ekintzarik merezi dudanik.

**Iruñeko zezen plazako presidentea izan zara eta Nafarroako Emakume Aurrerakoen elkartekoa ere bazara. Zilegi al zait kontraesana ikustea?**

Sanferminetan zezenek protagonismo itzela dute

gure hirian eta presidente izateak festa beste modu batean ikustera eramaten zaitu.

**Baina zeu ere oso zezenzalea zara eta horrek “armairuan” edukiko zaitu zenbait girotan, noski!**

Zezen zalea baino, Sanfermin zalea. Zezenak dehesetan ikustea atsegin zait, baita gaueko eta goizeko entzierroak ikustea ere.

**Zein da zure lagunik onena Real Madril taldeko jokalarien artean?**

Lagun asko dauzkat Real Madrilen nire senarrak han jokatu zuelako lau urtez. Orain jokatzeko dutenetatik Gutirekin gorde dugu harremana eta baita egun, Real Madril utzita, beste futbol talde batzuetan dabilzanekin ere.

**Beraz zure senarra izarra izateko bidean zegoen baina argia itzali zitzaion. Nola egokitu da bizimodu “lurtar” honetara?**

Futbolariet badakite futbola urte batzuetarako dela eta, “galaktikoek” izan ezik, bizimodu berria aurkitu beharko dutela.

**Zein da zure ondorengo helburua Nafarroako bizitza publikoan, kontatzeko moduan baldin bazaude...**

Egia esan, daukagun panoramarekin gogo guztiak kentzen zaizkit. Gainera uztaillean kongresua dugunez, ikusiko dugu zer nolako adostasunetara iristen garen datozen lau urteetarako!

**Zure ustez non egongo da traba: Madrilen ala Iruñean?**

Gehienbat Iruñean, baina lasai asko egon daitezke: ez dut inoren posturik ezta inolako poltronarik nahi. Zinegotzia izan aurretik beti lan egin izan dut gizarte-sareetan eta horrela jarraituko dut: horrek merezi du benetan! ■